

# Tratu txarrak etxean

## Euskal emakumeen % 12k soilik salatzen ditu eraso sexualak

**E**uskal emakumeen % 12k baizik ez ditu salatzen eraso sexualak atzo Txaro Arteaga Emakundeko zuzendariak emakume erasotuentzat Bilbon zabalduko duten abegi etxebizitzaren komenio sinaketan adierazi zuenez. EGUNKARIA holako pisu batera hurbildu da, zein motatako jendea bizi eta nola funtzionatzen duen jakiteko.

G. AGIRRE / BILBO

Euskal Herriko Unibertsitateak, Emakundek eta Bizkaiko Foru Aldundiak komenio bat sinatu zuten atzo eraso sexualak eta tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeentzat Bilbon abegi etxebizitza zabaltzeko. Leku honetan emakume erasotuei laguntza psikologikoa emango zaie.

Atzo sinatutako laguntza komenioaren bitartez, Diputazioak beharrezko dirua eta etxebizitza jarriko du. EHUK, berriz, laguntza pertsonala; eta Emakunde, azkenik, pertsonal horren heziketaz arduratuko da. Bortxaketa, eraso, tratu txar edo irainengatik egoera «jasanezinean» dagoen emakumearentzako laguntza hau urtariletik aurrera eskainiko da.

EGUNKARIAK Bilboko udalaren Emakume sailera jo du erasotutako andrezkoen egoera eta irtenbideen berri izateko. Era berean, Udalak duen emakume hauentzako abegi etxebizitza batera hurbildu da bertan bizi den emakume batekin hitz egiteko.

Tratu txar eta irainei «aski da» esaten dieten emakumeak gero eta gehiago badira ere, oraindik asko dira egunero egunero beraien azalean tratu txarrak pairatzen dituztenak. Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen % 5ek bakarrik salatzen du bere egoera.

Senarraren errepresaliak izatearen beldurra, erakundeengan sinesmen edo esperentza gutxi, senarrarengandik banatzeko bitarteko ekonomiko eza, eta nora joanik ez eukitzea dira, besteak beste, emakume askok tratu txarrak ez salatzearen arrazoiak, Bilboko Udalaren Emakume saileko laguntzaile baten arabera. Tratu txarrak pairatzen dituen emakumeen eredu nagusiak honako ezaugarriak betetzen ditu: 40 urte baino gehiagokoa eta zenbait seme-alabaren ama izatea, eta bitarteko ekonomikorik ez edukitzea. Emakume hauen gehiengoak maila sozial baxukoa da eta, gehienetan, hamar urte baino gehiago darama halako eraso eta irainak pairatzen.



E.O.k aurpegia izkututzen du, senarraren errepresalien beldur bait da. SIALVA

**✓** Bikote gazteetan senar alkoholiko edo drogazaleak kolpatu egiten duelako banatzen da andrea.

**GAZTE ZEIN HELDU**

Hala ere, eredu apurtuz joan doa. Tratu txarrak jasaten dituzten emakume gehienak 35-45 urteren bitartekoak badira ere, 25-35 urtekoak eta 55-70en artekoen kopurua berdina antzekoa da. Horren arrazoiak desberdinak izaten dira baina.

Bikote gazteetan senar alkoholiko edo drogazaleak kolpatu egiten duelako banatzen da andrea. 60-70 urtekoetan, berriz, planteamendua erabat diferentea da. «Nahiko agoanatu dut. Urteak daramatzat tratu txarrak jasaten baina gelditzen zaizkidan bi urteak ondo eta lasai biziko ditut» pentsatu dute aurrera egiteko ausardia daukaten emakume hauek.

Senarrak emakumea ihaultzeko arrazoiak anitz dira. Gizona alkoholzale edo drogazalea izatea, matxismoa bera, langabezia, arazo ekonomikoak, heziketa maila eskasa, fideltasun eza, pertsonen arteko tirabirak, bikoteko partaideak modu ezberdinean heldu izana eta abar. Hala ere, tratu txarren % 50 alkohol arazoek eragiten dituzte.

Bikotearen arteko harremana



Txaro Arteaga.

erabat hondatuta dagoenean emakumeek udaltzain zein Polizia Nazionalak duen Emakumearen zerbitzura jotzen dute. Batzuk senarraren aurkako salaketa egiten dute eta beste batzuk informazioa lortu eta etxera bueltatzen dira.

**ABEGI ETXEBIZITZA BAT**

Senarraren aurkako salaketa egiten duten emakumeek etxera bueltatu nahi ez badute, instituzioek, udaletxeek edo foru alduendiek etxebizitza bat eskaintzen diote. Etxebizitza bat lortzeko emakumearen integritate fisiko edo psiki-

**✓** 60-70 urteko emakumeak ere banatzen hasi dira, bizitzeko dituzten urteak lasai pasatzeko.

koak arriskutan behar du izan.

Etxebizitza hauetan emakumea eta bere seme-alabak hiruzpalau hilabetez bizi dira, banaketa tramitatzen den bitartean. Denbora tarte honen ondoren, emakumea bikotearen etxebizitzara buelta daiteke, baldin eta seme-alaben berak badauka.

Senarrak gehienetan ez daki etxetik alde egin duten emakumea eta seme-alabak nora joan diren bizitzeko, pisu hauen helbidea ezezaguna bait da. Etxe hauetan familiak autonomia osoa dauka bere bizitza egiteko.

Familiaren barruan bizi izan duten eraso giroak eragin zuzena dauka bikotearen seme-alabengan. Erasotutako % 80k aita imitatzen du. Beraz, erabat betetzen da esakerak dioena: «txikitan tratu txarrak jasan eta handitan eman».

Aiten % 8,75ek bere seme-alabak umilatu, iraindu, ihauli edo bakarrik uztearekin mehatxatzen ditu eta % 4,8k zigor fisikoa erabiltzen du 'hez-kuntza' gisa. Gizon hauetako % 5,5k, bestalde, seme-alabekin bizi izateko arazoak dituela dio.

**✓** Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek ez dute bitarteko ekonomikorik banatzeko eta gainera sinismen eta esperantza gutxi daukate erakundeengan.

**Aurpegian nabari zaio urteetako etsipena**

G. A. / BILBO

E.O.k bere izena eta aurpegia izkututzen ditu, senarrak har ditzakeen errepresalien beldur da. Bere aurpegian urteetan etsipenez jasandako tratu txarrak isladatzen dira.

Urteetan bera eta bere bi semeak gizon alkoholiko baten gogo eta nahien menpe bizi izan dira. E.O.k beti lan egin izan du etxean eta etxetik kanpo, taberna bateko zerbitzaria bait da. Berak bakarrik hezi ditu bi semeak, ekonomikorik berak atera du familia aurrera, senar alkohol zalea ez bait da gai lanpostu batean bi egunez irauteko.

Etxean ohizkoak ziren istiluetako batean, senarrak etxetik bota zuen eta nora joan euki ezean etxeko eskirelan igaro zituen urriko bi gau. Handik tabernako nagusiaren etxera joan zen nora joan aurkitzen zuen bitartean. Polizia Nazionalak duen Emakumearen zerbitzura jo zuen gizonaren aurkako salaketa egitera eta han esan zioten Bilboko Udalak bere egoeran dauden emakumeentzako abegi etxebizitzak zituela.

Udaletxera joan zen Emakumearen zerbitzura eta bertako arduradunekin hitz egin eta bere egoera aztertuta ondoren, abegi etxebizitza bat eskaini zioten. Egun, bi hilabete daramatza Bilboko auzo ezezagun bateko pisu batean bere bi semeekin bizitzen, bere gizonak Ezkerraldean bizi dela uste duen bitartean.

E.O. senarrarengandik banatzeko tramiteak egiten ari da. Semeek berarekin bizi nahi dute, beraz, epaileak behin behineko baimena ematen dionean bikotearen etxebizitza bueltatuko dira ama semeek, senarrak handik alde egin beharko duelarik.

Etorkizunean lasai bizi izateko esperantzak dauka E.O.k. Bizitzari ez dio askorik eskatzen: lan egin, semeek lanpostu bat aurkitzea, eta, batez ere, etxean lasai bizitzea.

**PUBLIZKUNTZA 91 Donostia**

**PUBLIZITATEA ETA HIZKUNTZA EZ NORMALIZATUEI BURUZKO I. FERIA ETA KONGRESUA**

Feriako sarrera dohan. Erregaloak bisitari guztientzat.

**FERIA:**

Udaletxe azpiko aretoa. Abenduak 18-22. Astegunez; 5-9. Asteburuan: 11-2 eta 5-9.

**KONGRESUA:**

Magisteritza Fakultatea. Abenduak 19-21.